



TOLOSAKO
UDALA

INAUTERIETAKO KONPARTSEK FERIALEKUA ERABILTZEKO BALDINTZAK ETA ARGIBIDEAK

Lehena. Izen emate eskaera beharko da eta izena emateak ferialekuaren baldintzak onartzea ere ekarriko du. Behar diren datuak: eskatzailearen datu pertsonalak eta harremanetan jartzeko datuak, parte-hartzaile guztien izen-abizenak, konpartsaren izena, neurriak eta ezaugarri nagusien laburpena (gaia, ikuskizun mota, etab.) Inprimakia bete ondoren, bide hauetakoren batetik aurkeztu behar dira:

- Aurrez aurre, UDATE zerbitzuan (Plaza Zaharra 6A -20400- TOLOSA)
Orduategia_ Astelehenetik-asteazkenera: 07:15-14:15.
Ostegunetan: 07:15-19:00
Ostiraletan: 8:15-14:15
- Erregistro elektronikoan.

Hirugarrena. Konpartsako kideek adin nagusikoak izan beharko dute. Adin txikikoak izanez gero, gurasoak edo tutore legalak izango dira ordezkari udal honetan.

Laugarrena. Baimendutako pertsonak eta konpartsek lagapenerako soilik erabili ahal izango dute lagatako espazioa; hau da, konpartsen plataformak eta elementuak egiteko, eta debekatuta egongo da espazioa beste edozein jardueratarako erabiltzea.

Bostgarrena. Baimenaren titularrek egiten dituzten jardueretan zorrotz bete beharko dira laneko osasunaren eta arriskuen prebentzioaren arloko neurriak. Udalak edozein unetan egin ahal izango ditu ikuskapenak neurri horiek betetzen direla bermatzeko.

Seigarrena. Erabiltzaileek arrisku, ausarkeria, zuhurtziagabekeria edo utzikeria egoera oro saihestu beharko dute, eta baimenean xedatutakoa betetzen ez badute, Udalaren edo hirugarrenen aurrean erantzun beharko dute.

Zazpigarrena. Baimendutako pertsonak izango dira egiten dituzten jardueren edo espazioa okupatze hutsaren ondorioz pertsonari edo ondasunei eragindako kalteen erantzule. Hori horrela, Udalari edo hirugarrenei eragindako kalteen erantzule izango dira. Halaber, hala badagokio, espazioaren eta instalazioen erabiltzaileek izango dute erantzukizuna beste pertsonari eragindako kalte edo lesioengatik.

Zortzigarrena. Espazioen erabiltzaileek une oro errespetatu beharko dituzte udaleko zerbitzu teknikoek emandako jarraibideak, bai eta honako baldintza hauek bete ere:

- Erabiltzeko orduategia honako hau izango da: astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:30era; asteburuan 10:00etatik 20:30era.
- Ferialekuko ateak itxita egon beharko du beti, eta debekatuta egongo da bertan egiten den jarduerarekin zerikusirik ez duten pertsonak sartzea.
- Debekatuta dago ibilgailuak esparruan aparkatzea.
- Udalak instalazioetarako sarrera mugatu edo debekatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik.
- Konpartsako kideentzat edo beste pertsona batzuentzat arriskutsuak diren elementuak saihestu beharko dira, bai eraikitze edo biltzeko unean, bai jendaurrean jartzeko unean.



TOLOSAKO
UDALA

- Ferialekuko plataformen eta hormen arteko gutxieneko tartea 1,20 m-koa izango da.
- Plataformek ezin izango dute irteeretakako bidea oztopatzen duen objekturik izan.
- Segurtasun-elementuak blokeatzen dituen objekturik ezingo da instalatu.
- Ezingo da produktu sukoirik sartu. Ferialekuan ezingo da surik egin, ezta txinpartak sortzen dituen tresnarik erabili ere.
- Uretako pinturak bakarrik erabili ahal izango dira.
- Ferialekuak garbi egon beharko du uneoro.
- Ferialekuko segurtasun-elementuak ezin izango dira manipulatu, beharrezkoa ez bada behintzat.
- Entxufeak ez dira gehiegi kargatuko, babesak aktibatu ez daitezten. Eguneroko lana amaitu ondoren, dena deskonektatuta utzi beharko da.
- Jarduera amaitutakoan, baimenaren titularrek elementu guztiak kendu eta ferialekua baldintza egokietan utzi beharko dute, jaso zuten bezala.

Bederatzigarrena Jarduera amaitutakoan, baimenaren titularrek elementu guztiak kendu eta ferialekua baldintza egokietan utzi beharko dute, jaso zuten bezala. Hori horrela, Udalak dagokion exekuzio-agindua eman ahal izango du, baita modu subsidiarioan agindutako zereginak ere, baimenaren titularren kontura..

Era berean, baimenaren baldintzak betetzen ez badira, baimena baliogabetu egingo da eta espazioa erabiltzeari utzi beharko zaio. Dirulaguntza ere ukatu egingo da. Interesdunei entzuteko epea eman ondoren, kasuaren arabera bidezkoa den zehapen-prozedura ere abiarazi ahal izango da.

Irakurri ditut eta onartzen ditut goian aipatutako baldintzak.

Urtea / Año

Hilabetea /Mes

Eguna / Día

Eskatzailearen sinadura /Firma solicitante

